

Donostian, 2000.eko azaroaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia
eta P. Zabaleta
euskaltzainak,
eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea.

Hizkuntza arauak.

Hiztegi Batuaren 2. itzuliko A-Aberastu zerrenda aurkeztea.

Miren Azkaratek egin du zerrendaren aurkezpena. Hasteko, zenbait azalpen egin ditu: a) Norbaitek hasieran egindako oharrik baldin badu, orain jaso ez denik, horien berri batzordeari helarazten saiatu behar luke. b) Hiztegi Batuko lantaldeak H-z hornitua, aparteko eranskin gisa emango dira, eztabaida iturri ez direla uste izan denean; bestela, zerrenda nagusian utziko dira. c) *Bazt.* oharrak esan nahi du hitza ez dela orain erabiltzen. *Saih.* oharrak, berriz, esan nahi du hitza erabilia den arren, Hiztegi Batuko lantaldearen iritziz bazter uztekoa dela.

Bestelako oharren azalpenak eskaini ditu ondoren Azkarate andreak: adibidez, *EAr* agertzen bada, esan nahi du jadanik arautua dagoela. *AS-k* azpisarreraz osatzea proposatzen dela esan nahi du. *F* agertzen bada, batzordeak proposamena argi ikusten ez duela eta abar.

Idatzizko oharrak egiteko epea ezarri du: abenduaren 15a.

Donostian, 2000.eko azaroaren 24an, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrek eta laurdentan eman zaio hasiera bilerari. Bildutako euskaltzainen izenak ezkerreko zutabeetan jasotzen dira. Ezin etorria adierazi dute X. Diharcek, P. Salaburuk eta A. Zavalak.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Erregelen 89. artikularen inguruan, Satrustegiren iritzia ez dago behar bezala jaso eta egiten zaion erreferentzia kentzea proposatu du. Ohar hori onartuta, ontzat eman da agiria.

Euskaltzainburuaren hitzak

Andres Iñigo jaunaren ama hil dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Euskaltzaindiaren dolumina azaldu dio Iñigo jaunari. Hiletetan Erakundearen ordezkaritza zabala izan zela esan du.

Satrustegi jaunak galdetu du ea zalantzazko kasuetan etimologiak balia ote daitezkeen. Miren Azkaratek erantzun dio zalantza argitzeko balio badezake, sar litekeela irizpideen artean. Ahal dela, tradizioa eta hiztegiak erabilera izango dela nagusi. Etimologia ere sar liteke, gehiagarri gisa, behar denean.

Andres Urrutiak galdetu du ea hilaren 15erako egin behar diren oharrak euskaltzainek eskuartean duten zerrendari buruzkoak izan behar duten. Baietz erantzun zaio. Bestalde, *abal* eta *abandonu* hitzak direla eta, ageri diren bezala aurkeztuko diren galdetu du. *Abaldun*, adibidez, berria da. Horien ondoan, oharrak egitean, *abalkide* eta honen antzeko beste zenbait ere aurkez ote daitezkeen jakin nahi luke. Baietz erantzun dio Miren Azkaratek.

Beñat Oihartzabalek dio oharrak beti egin daitezkeela. Printzipioz, halako gauzetan hobe litzateke, hala ere, zuhur jokatu. Zalantza du zerrendan ageri den *abaldun* horrek zenbait baldintza betetzen ote dituen. Hitz berriak proposatu nahi badira, baina gutxieneko baldintzak bete gabe, behar-beharrezko denean bakarrik egin beharko litzateke hori.

Ondoren, Xabier Kintanak azaldu du zenbaitetan Unibertsitatean erabiltzen den lexikoa apunte mailan geratu dela, ez dela liburu izatera iritsi. Bigarren itzuli honetan horrelako hitzak sar litezkeela uste du. Hamabost urteko tradizioa izan dezakete hitz batzuek. Hitz horiek biltzeko eskubidea izan beharko litzateke. Maġutasuna behar litzateke.

Miren Azkaratek erantzun dio esanaz gaurko bizitzan beharrezko diren hitzak sartu beharra ere irizpidea dela. Arlo semantiko jakin batzuk osatzeko orduan beharrezko gerta daitezke hitz batzuk.

“Instituto Geográfico Nacional” delakoak bidalitako zerrenda aztertzea eta onartzea.

Madrileko “Instituto Geográfico Nacional” delakoak hitz generikoen zerrenda bat helarazi dio Euskaltzaindiari oniritzia eman diezaion. Miren Azkaratek azaldu duenez, erdal hitzen euskal ordainak aztertu ditu Euskara Batuko batzordeak, baina pentsatu du zerrenda euskaltzainen bilerara ekartzea zela hoberena.

Azterketa errazteko asmoz, 1988an Euskaltzaindiak egindako proposamena ere gehitu zaio zerrendari. Eta zenbait hitzetan Euskara Batuko batzordearen iritzia ere bai. Hitz askotan inolako oharririk ez da eta, beraz, besterik gabe onartzekotzat ditu batzordeak.

Xarriton jaunak frantsesarentzat ere gauza bera egitea eskatuko luke. Zerrenda osatzea eskatzen du. Haritschelharrek erantzun dio bakoitza bere txandan egingo dela.

H. Knörren ustetan, eskari bat iritsi zaio Euskaltzaindiari eta horri erantzun behar zaio. Frantsesez egitea geroko zerbait litzateke. Alfabetikoki zerrendatzea eskatu du, bestalde. Erantzun zaio alfabetikoki ordenatua etorri zela euskarazko zerrenda baina gaztelania jartzerakoan lehenbiziko hurrenkera hori hautsia gertatu dela.

Ohar hauen ondoren, banan-banan aztertu da zerrenda. Problemarik ez dutenak lehendabizi. Hauek besterik gabe ontzat eman dira. Ondoren zenbait eztabaida izan da:

Bainuetxea (= balneario) botoetara eman da: 12 alde. Kontra 1. Beraz, *bainuetxea* onartu da.

Trenbide/burdinbide bikotearen aurrean eztabaida sortu da. Gero, bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketa horrek: *burdinbidea*-ren alde, 9 eta *trenbidea*-ren alde ere 9. Emaitza honen aurrean biak proposatzea ere aipatu da, baina ez da onartu. Berririo bozkatu da: *burdinbidea*-ren alde orain ere 9 boto izan dira, baina *trenbidearen* alde, 10. Abstentzio bat ere izan da. Horrela, *trenbidea* ezartzea onartu da. Beraz, *F.C.*-ren ordain gisa *T.B.* proposatuko da.

Erribera-ren kontua ere eztabaidatu da. Bozketaren ondoren, *erribera*-ren alde: 15 boto. Kontra 1 eta abstentzio bat.

Laguna-ren ordain gisa zer eman eztabaidatu da ondoren. “Lago” zein “laguna” hitzen ordaintzat *aintzira* ematea proposatu da. Hamalau boto izan ditu proposamen honek bere alde. Zenbaitek *idoi* hitza proposatu badute ere, honek hiru boto besterik ez du bereganatu.

“Parador”-entzat *paradorea* ematea onartu da.

“Paso entre montañas” delakoak zer esan nahi duen argitzeko eskatuko zaio IGN-ri, ordaina eman baino lehen.

“Ayuntamiento” hitzaren bi adierentzat bi ordain desberdin ematea erabaki da: *udala* eta *udaletxea*.

Beste eztabaidarik ere izan da. Horien ondoren, “arroyo”-rentzat *latsa* ematea erabaki da; “regata”-rentzat, *erreka* eta “río”-rentzat *ibaia*. Orobat, “abrigo”-rentzat, *harpea* emango da; “cueva artificial”-entzat *koba*; “cueva”-rentzat *haitzuloa*; “sima”-rentzat *leizea*.

Eta eztabaida eta bozketa hauen ondoren, ontzat eman da zerrenda.

Barne-erregelen aldaketak

Aurreko bileran bozkatu gabe gelditu ziren bi aldaketa ekarri dira onartzeko: 11. artikuluari dagokiona bata eta 89.ari dagokiona bestea.

89. artikuluari dagokionez, idazkariak azaldu du zein den bi idazkeren arteko aldea: batean “batzordeburuak” aipatzen dira batzordekide gisa, idazkera berrian “bi kide” aipatzen diren bitartean:

89. art.

Testu zaharra:

“Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori argitalpen batzordearen bidez gauzatu da eta honela osatuko da batzordea: euskaltzainburua, euskaltzainburuordea, idazkaria, diruzaina, Iker eta Jagon sailburuak, batzordeburuak eta, idazkari lanetan, Argitalpen eragilea.”

Testu berria:

“Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori argitalpen batzordearen bidez gauza-

tuko da eta honela osatuko da batzordea: Zuzendaritzakideak eta beste bi kide. Idazkari lanak, Argitalpen eragileak egingo ditu.”

Bozketak honako emaitza izan du: hamaika, testu berriaren alde; bost, kontra eta lau abstentzio. Beraz, proposaturiko idazkera berria onartu da.

11. bis. 2. artikulua dela eta, J. A. Aranak bakarrik aurkeztu zuen ohar bat bere garaian. Ohar honen ondorioz, Zuzendaritzak bi testu eman ditu aukeran:

11. bis. 2

A. aukera

“Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdia artekoa izango da. Hutsartea gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarriko da eta hurrengo hileko osoko bilkuran hautatuko da.”

B. aukera

“Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdia artekoa izango da. Hutsartea gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarriko da eta hurrengo hileko osoko bilkuran hautatuko da. Buruaren eta buruordearen kasuan, duten errepresentazio balioagatik, lehenaren kargu uzteak bigarrenarena daramake. Zernahi gisaz, buruorde izan denak euskaltzainburutza hartuko du, buru eta buruorde hautaketa berria gauzatu arte.”

Lehen testuaren alde mintzatu da H. Knörr. Haren ustez, hobeki ziurtatzen ditu euskaltzain gutzien eskubideak.

Bozkatu ondoren, A aukera onartu da (13 boto), B aukeraren kontra (5 boto).

Eskuartekoak

Herri literatura jardunaldiak

Abenduaren 28 eta 29an Bilbon egingo diren Jardunaldien berri eman zaie idatziz euskaltzainei, parte hartzeko gonbitarekin batera.

Frantziako CNRS-ren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena.

Lankidetzak aurrera ateratzeko eta dirulaguntzak eskatzeko orduan horrelako hitzarmenak nahitaezko gertatzen direla azaldu du euskaltzainburuak. Ontzat eman da, aho batez, hitzarmena sinatzea.

Azken ordukoak.

Iratzederren gutuna.

Iratzederrek gutuna egin dio euskaltzainburuari Bellokeko Abadeak “Euskaltzaindiko bilkuretarat joateetik gelditzeko ordua” iritsi dela adierazi diola esanaz. Dimisio gutuna dirudien honi buruzko iritzia eskatu die euskaltzainburuak euskaltzainei.

Formalki dimititu ez duenez, euskaltzainburuak Iratzederri idatziko dio eskatuz bere baitatik uzten duela adieraz dezan, arrazoiak emanaz. Bestalde, abadeari ere idatziko zaio Euskaltzaindiaren erregelen berri emanaz. Gutun hauen erantzuna jasotzean, hartuko da erregelen arabera erabakia.

Nafarroan euskararen inguruan sortu den ondoeza dela eta gutuna.

Nafarroako presidente den Miguel Sanz jaunari zuzendutako gutun zirriborro bat aurkeztu zaie euskaltzainei. Nafarroan euskararen egoera aldarazi nahi duen dekretu berria dela eta, Euskaltzaindiaren kezka eta ondoeza agertu nahi da. Oraingoz, proiektu bat besterik ez denez, Euskaltzaindiak bere kezka agertu besterik ezin du egin. Proiektu soil bat ezin baitu Euskaltzaindiak kritikatu. Euskaltzaindiaren eskari bat dela adierazi du Andres Urrutia jaunak. Estilo kontu batzuk zuzendu ondoren, aho batez onartu da gutunaren testua.

“Euskaldun unibertsal” izendapenerako proposamenak

“Euskaldun unibertsala” ohorezko izendapena gauzatzeko proposamenik ba ote den galdetu zaie euskaltzainei. Nolanahi ere, datorren hilaren 10.a baino lehen egin beharko litzateke proposamena. Zenbait izen hartu dira ahotan. Azkenean, J. M^a Setien apezpiku jaunaren aldeko proposamena mahairatu du Charritton jaunak. 15 boto izan dira proposamenaren alde. Abstentzioak, 3.

JAGONET-en aurkezpena.

Miren Azkaratek jakinarazi du datorren ostegunean egingo dela JAGONET kontsulta zerbitzuaren aurkezpena.

Batzar eguna aldatzeko eskaria.

Miren Azkaratek abenduko bilera 29tik 22ra aurreratzea eskatu du, egokiago iruditzen baitzaio Eguberriak baino lehen egitea. Onartu da, baina arratsalderako iragarrita zeuden gertakizunak ere egun horretara aurreratuko dira. Euskaltzain ohorezko berriei agiriak banatzea egun horretan izango denez, dagokienei behar bezala emango zaie aditzera.

Azkenik *Hiztegi Batuaren* argitalpenaren berri galde egin du Andres Iñigok. Las-ter izango dela kalean erantzun zaio, *Euskera* aldizkariaren ale berezi gisa.

Eta hirurak hamar gutxitan amaitu da bilkura.

Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar

Idazkariak

Patxi Goenaga

* * *